

Frantziako lehendakaritzarako hauteskunderen bigarren itzuliari so

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Macronek segitzen du Frantziako presidente, sostengu gutxiagorekin


Frantziako lehendakaritzarako bigarren itzulia irabazi du orain arteko presidentea, botoen %58,6 lorturik, 2017ko bigarren itzuliari alderatuz, ia bi milioi boto galdu arren. Peraan zuen eskuin muturreko Marine Le Pen, hauteskunderen hauteskunde indartuz doana –duela bost urte %33,9 egin zuenak aurten %41,4 egin du, 2,5 milioi boto gehiagorekin–.

Abstentzioa ere da bozketa horietan kontuan hartzeko osagaietariko bat: 2017ari alderatuz, 1,5 milioi hautesle gehiago gelditu dira bozka-lekutik pasa gabe: bozkatzailen %28,2a. Bozkatzera joan baina zuri edo baliogabeko papera jarritakoei begiratuz gero, 2017an baino gutxiago dira –%11,52tik %8,6ra–, baina abstentitu direnen kopurua hiru puntuz emendatu da bost urtez. 1969az

geroztik ez zen ikusi hain parte-hartze apala. Macronen politika gaitzesteko ahotsa izan da hein batean, batez ere ezkerreko bozkatzailen partetik.

Lehen itzulian, hirugarren atera zen ezker muturreko Jean-Luc Melenchon, eskuin muturrarekin 0,8 puntuko alde ttipiarekin, eta bestelako hautagaitzek ez zuten %10aren langa gaitzitu. Analisisiei eta zundaketei begiratuz gero, badirudi Melenchonen aldeko gutxiengo batek duela bigarren itzulian Le Pen bozkatu –%17 Ipsos Sopra Steria institutuaren arabera–; hots, gehiengoa abstentzioaren –%42a– eta Macronen alde –%41a– kokatu da. Eskuin muturrari bidea mozteko, gogoz kontra Macron bozkatu du beraz 2017an bezala ezkerreko hautesle goak –nahiz eta duela bost urte baino hiru milioi hautesle gutxiagok egin bigarren itzulian Macronen alde–. Ezkerreko hautagaitza guztiek zuten Le Peni bidea mozteko deia luzatua, batzuk Macronen alde bozkatzeko deia eginez –Alderdi Sozialista, ekologistak–, besteek boto erabakimena utziz –Melenchon, NPA zein Alderdi Komunista–.

Lehen itzulia




2022

Boto baliogabea edo zuria: %2,20
Abstentzioa: %26,31

2017

Boto baliogabea edo zuria: %2,56
Abstentzioa: %22,23

Bigarren itzulia



2022

Boto baliogabea edo zuria: %8,60
Abstentzioa: %28,01

2017

Boto baliogabea edo zuria: %11,52
Abstentzioa: %25,44

ESKUIN MUTURRAK, 2017AN BAINO 2,6 MILIOI BOTO GEHIAGO

Indarra hartuz doa eskuin muturra Frantziako Estatuan ere eta bigarren itzuli honetako emaitzak dira frogatzen: lehen itzulitik bigarrenera, bost milioi hautesle gehiago izan ditu Le Penek, orotara hautesle %41,4 batuz. Nabarmentzekoa da Frantziaren menpe diren itsasoz haraindiko eremuetan eskuin muturra garaile atera izana, jakinez lehen itzulian Melenchon zela irabazle. Macronen politikarekilako desadostasuna markatzeko bidea izan da beraz batzuentzat eskuin muturrera jotzea. ●